

Soinutik poesiara: hipotesi baterako lehen urratsak

Juan Kruz Igerabide

UPV/EHU

Laburpena

Lan honetan, euskal tradizio sehaska-kanta onomatopeiko bat oinarritzat harturik, soinutik poesiarako abiapuntuaren hipotesi bat jorratzen da, eta pieza-mota horien sormen-mekanismoa oso antzinakoa dela proposatzen da, antropologoen harri-arogan bizi ziren leinuak azertzean topaturiko poesia-pieza zenbaitekin parekatuz. Oso oinarritzko prozedura poetikoa ageri da halakoetan, esanahi jakinik gabeko silabetan oinarritua; eta, fase aurreratuagoetan, onomatopeiak eta hitz solte batzuk agertzen dira, bestiere egoera emozionalei lotuak.

0. Sarrera

Manuen Lekuonaren liburuetan ezagutu nuen lehen aldiz *Ttunkurrunkutun* sehaska-kanta tradizionala, Oiartzunen jasoa, onomatopeia- eta silabajolasa oinarri duen soinu-poema eta doinu-poema. Badirudi, Juan Mari Lekuonaren azalpenei jarraiki, sehaskak zurezko zoruan kulunkatzean ateratzen duen hotsaren onomatopeiatik abiatzen dela, eta nabaria da, bestalde, perkusio-tresnaren baten (atabal, ttuntun) oihartzuna. Poematxoan, hitz bakar bat dago «esanahiduna», *kuttuna*, bi zentzu dituen hitza: alde batetik, maitasuna adierazteko erabiltzen den izenondoa, sehaska-kanta baterako ezin aproposagoa; bestetik, *amuletoa* esan nahi duen izena, loa babesteko hitz ezin aproposagoa hori ere.

Pieza horren antzekoa da *Ttikirrikittona* jolas-poema, egurrezko perkusio-tresna herrikoiren baten oihartzuna duena (panderoarena ere gogorartzen du); egitura bera du, baina bokal-aldaketa eta *n* desagertzea aski da logiro lasaigarritik, jolas-giro bixi-bixi batera igarotzeko.

Hipotesi hutsa da nire hau, agian susmoa besterik ez, konprobazio eta lanketa «zientifikoago» baten zain, baina nago pieza horien ezaugarriek oso atzera eramaten ote gaituzten. Beharbada, atzo goizean amonaren batek asmatuak direla agertuko da egunen batean dokumentaturik; hala ere, pieza horien egiturak, antropologoen jaso dituzten beste zenbait piezarekin alderaturik, poesia sortzeko antzinako modu batera garamatza, ikusiko dugunez.

1. Oinarrizko piezak

Hona, oinarriztat hartu ditudan piezak:

Ttunkurrunku, ttunkurrunku, ttunkurrunkuttuna,
runkuttunku, runkuttunku, runkuttunkuttuna

Ttikirriki, ttikirriki, ttikirrikittona
rikittiki, rikittiki, rikittikittona.

2. Interpretazio baten haritik

Bere garaian, Juan Mari Lekuonak (1982: 35-45) *Ttunkurrunku* pieza-
ren azterketa sinbolikoa eskaini zuen: alde batetik biko erritmoa daukagu,
sehaska batera eta bestera kulunkatzearen erritmoa, eta aldi berean sehas-
kak zoruko egurrean ateratzen duen soinuaren oihartzuna, onomatopeia. Esa-
nahi denotatiborik apenas duen kanta horretan, ia ez baita ezer ulertzen, hitz
bat nabarmentzen zaigu erritmo silabikoaren artean, «kuttun» hitza. Uler de-
zakegun hitz bakarra erabat afektiboa da. Badirudi poesia, sorreran, egoera
emozional-afektiboak adierazteko erabili izan dela, gero ikusiko dugunez;
eta, pieza honek, bete-betean betetzen du ezaugarri hori. Juan Mari Leku-
onak zioen *u* bokala erabiltzeak itzala edo iluna adierazten duela, eta aldi be-
rean baretasuna; baina ilun hori ez da beldurgarria, *n* kontsonante emearekin
batera ageri baita, amaren babesean alegia. Beste era batera esanda: kantuak
lotarako giro epel babestua sortzen du, eta aldi berean maitasun sakona adie-
razten, *u* hori halaber sakontasunaren adierazle baita. Ez dakit Lekuonaren
interpretazio hori zuzena den ala subjektiboegia; esan dezaket, ordea, proba
enpirikoak egin ondoren, kantu horrek haurra lasaitu eta gozatu egiten duela.
Piezak ezaugarri guztiak ditu, errepikaren errepikaz, egoera hipnotiko bat
eragiteko, antzinako kantu zahar ugariren modura, eta egoera «induzitu» ho-
rren bidez oinarrizko mezu emozional bat adierazteko: maitasuna, babesa, la-
sai egon, egizu lo...

Ezaugarri horiekin batera, mugimendua ere oso kontuan hartu behar da.
Poesiaren sorreran, gorputz-adierazpidea, doinua eta hitz (edo hitzaren au-
rreko silabismoa) baturik agertu ohi dira. Haurra besoetan izanez gero, gor-
putza kulunkatuz kantatzen da; sehaskan baldin badago, sehaska kulunkatuz,
mugimendu erritmikoak eginez. Gorputza ere bada mezuaren adierazle. Pen-
tsamendua, sentipenak eta gorputza batera doaz.

Ttikirriki piezan, jakina, beste mugimendu mota batzuk erabiltzen dira.
Ttunkurrunku baretzeko bada, *Ttikirriki* pizteko eta estimulatzeko asmatua
da, erritmo biziagoz, dantzarako lehen adierazpenak eskainiz haurrari.

3. Prozedura poetikoa

Halako prozedurak erabiliz kantuak eta esapideak osatzeko joera oso zaharra da, inondik ere. Bada dioenik hizkuntzen sorrerarekin loturik dagoela joera hori. Hots, hizkuntzaren hasieran soinu-onomatopeiak agertzen omen direla, mezu emozionalak adierazteko. Hasieran, poesia, beraz. Onomatopeiak eta hitz bikoizketak («Atxia-motxia» eta horrelakoak) aztertu dituztenek oso atzera jotzen dute, hizkuntza indoeuroparrak kontinentean sartu aurreko garaietara, agian Paleolitoraino (nahiz eta hipotesi-mailan geratu kontu horiek ere). Ez dakit benetan noraino jo daitekeen atzera, eta kontua ez da aroak zehazten hastea, baizik eta ikustea «mekanismo» gisa oso zaharra dela eta antzekotasun handiak dituela harri-aroen duela gutxi arte bizi izan diren herrien ekoizpen poetikoarekin.

Bada sinbolismoari buruzko liburu interesgarri bat, Schneider antropologoarena (1998), eta hark dio ezen guganaino Erdi Aroan zehar igaro den sinbolismoaren gorputza nekazari-kulturak sortu zirenean osatu zela, Mesopotamian, Egipton, Indian, eta abar. Gizaki primitiboak sortutako sinboloak bildu eta sistema bihurtu zituzten, eta ipini zituzten harremanetan koloreak, nota musikalak, zenbakiak, zeinu astrologikoak, izadiko elementuak, landareak, animaliak, objektuak..., eta sistema hori omen dago gure Mendebaldeko kultura guztien oinarrian. Horrez gainera, sistema sinboliko hori baino lehenago sortutako sinbolo primitiboen oihartzunak oraindik bizirik daude zenbait hizkuntzatan (eskimalen artean, Afrikako tribu batzuetan, Australian...), eta horien artean zenbait hizkuntza modernizatueta ere zantzuak ageri dira. Emango nuke «ttunkurrunku» piezan zantzu horietakoak ageri direla, baina ez lanketa zientifiko zorrotzagoa egin beharko litzateke hori demostratzeko.

Dena dela, mota horretako piezak tradizio herrikoietan oso zaharrak izaten dira. Bowra ikertzaileak (1984) jasoak ditu antzeko piezak beste kultura batzuetan. Beraren iritziz, giza doinueta hitzak agertu aurretik, silabak erabiltzen ziren, batzuk onomatopeiak, beste batzuk oihuen antzekoak, eta geroago sartu ziren hitzak kantuetan, eta are geroago esaldiak. Adibide batzuk eskaintzen ditu Bowrak; esate baterako, Amerika Hegoaldeko Suaren Lurraldeko indiarrenak, *yagan* leinukoenak; inondik ere, oso egoera primitiboan bizi ziren, eta oso modu bitxian adierazten zuten adiskidetasuna, hots, batera eta bestera jauzika modu erritmikoan ibiliz eta silaba ulertezinez lagunduriko kantu hau kantatuz (ikus nola *Ttunkurrunku* piezaren jokabide bera duen: barne-sentipen bat adierazi giro bat sortuz, eta gorputz mugimenduz lagunduz):

Ha ma la
 ha ma la
 ha ma la
 ha ma la...

4. Jatorri emozionala

Bowra-k bereziki azpimarratzen du kantatzen diren soinu horiek emozio bat adierazteko erabiltzen direla, eta oro har oso monotonoak direla, entzuten duenarengan halako eragin hipnotiko bat sorrarazteko edo; hipnosiak, zentzu zabalean, entzulea baretzen du (edo modu jakin batean kitzikatzen) eta haren zentzuak zabaltzen ditu, eskaintzen zaiona barnera dezan eta horrek entzuleagan eragin bat izan dezan, adierazten zaion emozioa barnera dezan; esate baterako, emakumeek eta neskatxek kantatzen dute honako hau:

Ma las ta
xai na sa
ma las ta
xai na sa
ma las ta
xai na sa...

edo beste hau:

Hau-a la-mas ke-te-sa
hau-a la-mas ke-te-sa
hau-a la-mas ke-te-sa...

5. Beste leinu batzuetakoak

Yagan leinukoek, inondik ere, kantu mota horiek soilik kantatzen omen zituzten, esanahi jakinik gabeko silabez osatuak. Beste leinu batzuetan, hizkuntza ezezagunetatik hartzen dira hitzak eta silabak, edo aspaldiko hitzetatik datoz, edo onomatopeietatik; baina, *yagan*-en kasuan, Bowrak dio ez dela halakorik; nolabait mota horietako kanturik garbienen adibide dira halakoak. Gure «ttunkurrunku» horiekin alderatzen badugu, onomatopeiak eta hitz ezagun bat behintzat identifikatzen ditugu; hurrengo pauso batean gaude inondik ere, baina ildo bereko kantuez ari gara, zeren ezaugarri nagusia emozio edo sentipen baten adierazpena baita, eta egoera hipnotiko bat sortzea. Lirrikarik antzinakoenaren jatorria ikusten du Bowrak halako piezetan, hots, poesiaren jatorria.

Suaren Lurralde berean, *ona* leinukoek ere antzeko kantuak zituzten. Goizean, egunari ongietorria emateko, honela kantatzen zuten:

Ha ra xe uka
ha ra xe uka
ha ra xe u

Eta, ilunabarrean, egunari adio esateko:

Hai ce rai ya
hai ce rai ya
hai ce rai ya

Beste leinu batzuetan, geroago eginiko kantuen zati gisa geratzen dira horrelako piezak, eta inondik ere horrelakoetatik sortu dira leloak, aipaturiko euskal «atxia-motxia» bezalakoak.

Eskimalen eta beste leinu askoren artean ere topatu dituzte halakoak. Bowrak pieza bat aipatzen du, bereziki, *arapajo* indiarrengandik jaso. Erlijio-errituetan erabiltzen omen zuten. Honela dio:

Ye no wi ci hay
yo wi hay
wi ci hay
yo wi ci no
wi ci ni
wi ni wi ci hay
yo wi hay
wi ci hay
yo wi ci ni hay
yo wi ci ni hay
yo wi how
wi ci hay
yo wi ci no
wi ni no wa.

Harrigarriena da kantu horretan agertzen diren silabak ez direla erabiltzen *arapajo* hizkuntzan. Badirudi edo antzinako hizkuntza galduren batetik etortzea, edo helburu erlijiosorako osatuak izatea. Gainera, pieza hori bera inguruetako beste leinu indiar batzuetan ere erabiltzen omen zen. Bowrak dio izan litekeela, indiar leinuen kanta horiek Suaren Lurraldeko kantak bezalakoak izatea aspaldi, eta gero, beste kantu motak agertu zirenean, hondakin gisa geratzea leinuen tradizioan.

6. Gurera itzulita

Gure hizkuntzan, halako jokabideen haritik jolas-poesia sortu da batik bat haur-folklorean:

«Xirristi-mirristi, gerrena, plat, kikili salda olio zopa, hurrup, edan edo klik, ikilimikiliklik». «Bara, bera, hirua, lara, boa, sea, zapa, zotza, behatza motza, errotako atsoa kaskamotza». Eta horrelakoak. Baina baditugu sentipenei eta bizipen emozionalei erabat loturikoak ere, eta horien artean adibi-

derik bikainenak ditugu «ttunkurrunku» eta «ttikirriki» kantuak, bata babesa eta lo-giroa adierazteko, bestea pozteko eta esnarazteko. Eta ildo horretakoak dira orobat «Ttolana, polana, ttontila pon», «Atxia motxia perolipan» eta antzekoak, nahiz eta gaur egun lelo hustzat erabiltzen ditugun, edota zenbait kantaren sarrera gisa.

7. Hurrengo fasea

Hurrengo urrats batean, silaben eta hitzen erritmoaz (dantzaren pausoan), errepikaz eta hoskidetzaz gainera, irudi poetikoa erabiltzen hasten da poesia, zuzeneko iruditik konparaziora, eta konparaziotik metaforara; pausoz pauso, lehenago aipatu dugun sinbolo-sistema hori osatzen du.

Mintzoak lotura zuzena du biziraupenarekin, eta ahozko poema tradizio-naletan indar hori behin eta berriz agertzen da. Izadiko arriskuen erdian bizirik irauteko mintzatu beharra dago, ingurukoei gauzarik behinenak adierazteko mintzatu beharra dago, izadiaren indarrei zerbait eskatzeko mintzatu beharra dago.

Hona boskimanoen beste kantu bat:

Zatoz, ilberri

Ilberri, zatoz, ekarri ura, ekarri ura.

Ilberri, zatoz, egin euria, egin euria.

Ilberri: bota ur zipriztinak guri.

Baina poesia mota horrekin beste aro batera sartzen gara. Lehen esan dudan moduan, beharbada gure tradizioan ez dira hain zaharrak hasieran aipaturiko piezak, baina pieza horiek egiteko buru-mekanismoak antzekotasun harriarria du Bowrak jasotako pieza ugarirekin. Hipotesi baten lehen zantzuak ematea baino ez da hau guztiau, egia da. Etorriko ahal da ikertzaile saiatuagoren bat azterketa sakonagoak egiteko. Zain-zain geratzen naiz.

Aipamenak

Bowra, C.M. 1984. *Poesía y canto primitivo*. Bartzelona: Bosch.

Lekuona, J.M. 1984. *Ahozko euskal literatura*. Donostia: Erein.

Schneider, M. 1998. *El origen musical de los animales-símbolos en la mitología y la escultura antiguas*. Madril: Siruela.